



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Gogoeta batzu ondareaz eta honen kontserbazioaz ipar Euskal Herrian

1993ko uztailaren 26ko bilkuran, Euskal kultur erakundeko Administrazio Kontseiluak euskal ondarearen batzorde iraunkorraren bere baitan sortzea onartu zuen.

Ondarearen alor guzietan lanean ari diren pertsonen osaturik, batzordeak hausnarketa lan bat egiten du ondarearen aldeko politika koherente baten martxan ezartzeko ipar Euskal Herrian.

1994ean, museogintzaz bere ikuspegia laburtzen duen testu bat hedatzen du. Gaur, testu hau eskaintzen die ondare alorrean ari diren guziei, ondarearen kontserbazio eta balorizaziorako politika koherente, hizketatu eta eraginkor baten eratzean parte hartuko duelakoan.

2003ko abendua

Gogoeta batzu ondareaz eta honen kontserbazioaz ipar Euskal Herrian

1 Gogoeta honen zergatia

Gaur egun, dena kontserbatu nahi izateak garrantzi handiko galderak sortzen ditu

...

Gaur egun Euskal Herrian, leku guzietan bezala, ondareak interes gero eta handiagoa pizten du jendearen baitan. Fenomeno honen ondorioak hauxe dira:

- gero eta gehiago babespen neurri eta babesteko gauza badaude,
- gero eta gehiago monumentu eta gune babestu badaude (sailkatuak ala zerrenda gehigarrian ekarriak) *,
- Ondarea balorizatua da Estatuaren, tokiko erakundeen, bai eta ere pertsonen ganik.

Interes handi honen iturria ondareak daukan garrantzi soziala, kulturala, ekonomikoa nahiz ekologikoaren kontzientzia zabaldu batean aurkitzen da. Gaur egun, jendeak den-dena kontserbatu nahi du eta kontserbatzeko posibilitateak gero eta handiagoak dira.

Alta dena kontserbatu nahi izateak arazoak ekar ditzake arrazoi ekonomikorengatik (kontserbazio eragiketek kostu handia izan dezakete herri ttipientzat eta pertsonentzat), etikorengatik (kultura fosilizazioaren arriskua baita), edota ondarearekin zerikusirik daukaten arrazoinengatik (den-dena kontserbatzeak kalte egiten dio kontserbatzen denaren kalitateari).

Interes handia pizten duen ondareak, mesfidantza ere sor dezake, hain xuxen arrazoi hauengatik :

- ondareak kultura bizi baten itxura dauka Euskal Herrian, eta jendeak ez du berinapean ikusi nahi.
- batzutan gaizki edo sobera erabilia da, eta zinezko industria bihurtzen da.

Oharpen guzi hauek eramaten gaituzte kontserbazio arrazoikatu baten hautatzera, oraindik zehazteko diren irizpideren arabera aukeratutako ondare baten alde. Honi esker, ondarearen kontserbazio eta balorizaziorako politika koherente eta hizketatu bat antola liteke.

* Frantzian, 1840an : 109 monumentu sailkaturik ; 1936an : 7000 monumentu sailkaturik ; 2000.urtean : 40 000 monumentu (hauetarik 13 000 sailkaturik) eta 230 000 baliozko gauza babesturik. Euskal Herrian, 2000ko bukaeran : 330 monumentu babesturik.

... kultura eta ekonomiaren ikuspegitik ondarea erreferentzia nagusitzat hartua den gure lurraldean bereziki.

2 Ondareaz orokorki

« Ondarea zentzu guzietara "lehertu" da. Azken hoge urte hauetan, etxeko aldarapena eta monumentu historikoa, eliza eta gaztelua utzi ditu herriko latsagian edo kantu herrikoi batean babesteko. Notarien bulegoetatik eta artisten mundutik ihes egin du ordurarte baztertzen zuten alor guzietara iristeko : ohitura biziak, oraindik baliatua den ondare garaikidea, bai eta ere natura (...) Estatu eta nazio ondare batetik ondare sozial eta komunitario batera pasatu gara, ukan ondare batetik ondare aldarrikatu batera, azken honetan talde baten nortasuna irakur baitaiteke».

(Pierre Nora-k idatzia, *La France du Patrimoine* liburuaren aitzinsolasetik hartua, Découvertes Gallimard, 1996).

**Ematen dugun
ondarearen
definizio oso
zabalak...**

Ondarea ez da bakarrik monumentuak eta baliozko gauzak, ez eta ere gure arbasoek eman diguten eraikuntzei, lurrari edo diruari lotu kapitala. Jestuari (ezagutzak, teknikak, eguneroko lanak) edo hitzari lotu jakitateak (hizkuntza, mitoak, kondairak, toponimia eta beste ahozko ohitura guziak), praktika sozialak (jokoak eta kirolak, bestak, sukaldaritza), bai eta ekoizpen artistikoak ere (kantuak, antzerkia, dantzak, arte plastikoak, literatura) sartzen dira ondarean. Gure aurrekoek utzi baitizkigute eta gizakiaren eskuen edo ekintzen bidez antzaldatuak edo moldatuak izan baitira, bazterrak, ekosistemak, klima, animaliak, landaretza, luraren eta lurpearen aberastasunak ere, belaunaldi bakoitzak kudeatu behar duen ondarearen parte dira.

Ondarea, giza-multzo baten nortasuna oinarritzen eta multzo hori besteetatik bereizten duten osagai material edo inmaterial guziez osatua da. Baina "ondare bilduma" hori hain da zabala non eskatzen duen kontserbazio hautuak eginak izan daitezten.

Kontserbatzearen erranahia

Gaur egun, kontserbazioa definizio mugatu batetik definizio zabalago batera pasatu da, gauzen babespen arrunta kondutan hartuz, bainan ere heien zaharberritzea edota, zendako ez, berrantolatzea. Gauza bat modu desberdinez kontserba daiteke, "izoztuz", zaharberrituz, edo ere haren itxura eta funtzioa antzaldatuz, kontserbazio eragiketa horrek+ helburu pedagogiko bat ukan dezan ala ez.

Gauza baten kontserbatzea den bezala mantentzea besterik ez balitz, ahal guziak bali litezke.. Alta, errealitateak erakusten du kontserbazioak eskatzen duela kontserbatze modua kontserbatu nahi den gauzari egokituia izan dadin.

Kontserbazioak erantzukizuna ere eskatzen du : bai tokiko ontasun publiko edo pribatu baten ardura dutenengandik, bai eta ere nazio mailan babespen neurriak eta hauen aplikatzeko ahalbideak erabakitzen dituztenengandik.

Kontserbazioaren komenigarritasuna nola sartu antolamendu horretan ? Nola egin sinesgarri izan dadin azkeneko erabakia hartuko dutenen ikuspegitik ?

**...kontserbazio
prozedurak
gauza
bakoitzari
egokituak izan
daitezten
eskatzen du.**

3 Zer nolako ondarea kontserbatu ?

Gauza baten babespenak dituen kalitateak kontutan hartu behar ditu...

Ondareak norbaiten edo zerbaiten lekuko izan behar du

Garai baten, arkitektura estilo baten, ezagutza alor baten, lurralde edo herrialde baten adierazgarri diren osagaiek edo osagai-multzoek kontserbatuak izatea merezi dute, haien kalitate estetikoek, artistikoek, sinbolikoek, afektiboek, historikoek, etnologikoek, genetikoek edo ekonomikoek lekuko bihurtzen badituzte.

Gauza baten edo gauza multzo baten kontserbatzeak gizartearen adostasuna behar du nolabait. Hala ez bada, kontserbazioaren komenigarritasuna eztabaidatua izan daiteke.

Ondareak aktore izan behar du

... eta are gehiago oraingo bizitza laguntzeko duen gaitasuna.

- ondareak interesa sortuko du loturak sortzen baldin baditu gizartean.

Helburu gabeko ondare eraikiari erabilera berriak eta baliagarritasun bat atxeman behar zaizkio. Ondarearen alor batzu (adibidez kultura arloa : antzerkia, kantua, dantza) arramoldatu behar dira belaunaldi gazteentzat ulergarri eta adierazgarri bihurtzeko. Ondarea kontserbatzen ahalko da etorkizunaren eraikitzeko baliosa bada (baliagarritasun soziala, sinbolikoa, politikoa, ekonomikoa...). Horretarako helburu berri bat eman behar zaio.

- ondareak interesa piztuko du ekintza kreativeen sortzeko gai baldin bada. Tokiko ondaretik abiatuz sorkuntza egitea ez ote da ondarearen babesteko modurik onena ? Kontserbatzen den gauzak emozioaren sortzeko gai izan behar du, gaur egun ere...

4 Norentzat kontserbatu ?

Kontserbazio politika baten hartzedunak anitz badira, eta haien beharrak desberdinak izan daitezke. Hala ere, bi multzo bereiz ditzakegu : tokiko biztanleak, eta noizean behingo egoileak :

- Ondareekin egunero bizi den tokiko biztanleak
 - ingurumen naturalari eta kulturalari sentsibilizatuak izan daitezke ;
 - ingurumenaren aldatzeko asmoa adieraz dezakete ;
 - beren nortasunaren defendatzeko edota zenbait proiektu ekonomiko edo kulturalen segurtatzeko ondarearen alor bat edo beste beren gain hartzeko xedea ukan dezakete.
- Noizean behingo egoileak (aktibitate turistikoek eta komertzialek esker honat etorriak, besteak beste) Euskal Herria ongi ezagutu nahi dute, bertan egoten diren bitartean. Hurbiltze horretan, ondareak badu bere inportantzia. Beraz ondare hori modu bizian eta eraginkorrean aurkeztea, memoria eta gaurkotasuna gurutzatuz, oso garrantzitsua da.

5 Gogoeta eta proposamen lan talde bat sortu

**Ondarearen
alorrean ari
diren partaide
guziak biltzen
dituen lan
talde bat...**

Euskal kultur erakundeko ondarearen batzordeak ondarearen alorrean ari direnen indarrak biltzen ditu. Ipar Euskal Herrirako bederen, gogoeta eta proposamen talde hori izan daiteke.

Lan talde horren aktoreak

Estadoko zerbitzuen eta lurralde erakundeen ordezkariak edo teknikalariak

Lurralde zehatz batean finkatuak dira aktore hauek, eta erabakiak hartzen dituzte lurralde osoaren ezaugarriak kontutan hartuz.

Euskal Herrian ondareaz arduratzen diren elkarteen ordezkariak

Nork bere alor berezian lan eginez, guziek errealitatea ongi ezagutzen dute eta proposamen nahiz eskaera berezien egiteko gai dira.

**... tokiko
errealitatearen
eta
erabakitzaileen
artean
bitartekaria
dena...**

Kontserbazioaren eta arraberritzearen alorretan ari diren profesionalak

- erakustokiak
- artxibo zerbitzuak

Nork bere alorrean teknikak eta ezagutzak ekar ditzake.

Erakunde publiko ala pribatuen ordezkariak, lurraldea osotasunean begiratzeko usaia ukanez proiektuei koherentzia emaitako gai direnak.

- Euskal kultur erakundea
- Arkitektura, hirigintza eta ingurumenaren aholku batzordea
- Garapen kontseilua
- Hegoaldeko bi euskal autonomia erkidegoetako ondarea zerbitzuak

Gaiaren arabera, lantaldearen gogoetei juntatzen ahalko dira :

- Herri, hiri, herri-elkargo edo hiri-elkargoetako ordezkari edo teknikalari bat edo berte
- Tokiko biziko kulturean inplikatuak diren aktoreak
- ondareari formatuak izan diren eta alor horretan esperientzia duten artesau edo enpresak
- kontserbazioaren, hezkuntzaren edo ikerketaren (unibertsitalariak) alorretan berezituak diren pertsona kalifikatuak

Euskal Ondarearen Batzordea ordezkaturik izanen da ondarearen kontserbazioaren eta balorazioaren alde ari diren tokiko, departamenduko eta eskualdeko egitura guzietan

...ekintza konkretuen eta lehentasunen finkatzea helburu duena...

Lan taldearen helburuak

Egoera aztertu ondotik, lehentasunen sailkatzea eta finkatzea

Kontserbatzekoa den ondarearen identifikatzea :

- Euskal Herriaren berezitasunen lekuko diren ondare osagaiak,
- Bertako berezitasunik erakusten ez badute ere, alor berezi baten adierazgarri diren osagaiak (adibidez : Bankako burdinolak).

Emaitza horiek Euskal Herriko lurralde desberdinekin kurutzatzea

- Ondare mota bakoitza zein lurraldetan bereziki kokatzen den jakitea,
- Ondarearen kontserbatzeko lurralde bakoitzak egiten duena jakitea,
- Arriskutan diren osagaien aurkitzea eta kokatzea,

Atsulutuki kontserbatu behar diren ondare aberastasunen mapa bat egitea

Kondaketak, ikerketa teknikoak, eta urjentziako ekintzak bultzatzea

Proposatuak diren salbatze eta kontserbatze proiektuen bidez kotasuna frogatuko dute.

Baitezpadakoak diren ekintza programa bat proposatzea

Ondarearen kontserbazioa segurtatzeko

- ondare alorka edota motaka,
- lurraldeka,
- kontserbazioaren koherentzia errazteko ekintza horiek epe luze edo ertainerako eskema batean sartuz.

kontserbazioari buruzko sentsibilizazioa, informazioa eta hezkuntza egiteko

- kontserbazioaren alorrean ari direnentzat
- ondarea erabiltzen dutenentzat (adibidez : turismo alorrean ari direnak)
- bertako biztanleentzat
- mail guzietako ikasleentzat .

... bai kontserbazio mailan, bai eta ere hedapena nahiz hezkuntza mailan.